



BARNE-URETROTOMIA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA URETROTOMIA INTERNA

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
..... Data:

B. INFORMAZIOA:

Barne-uretrotomia uretrako estugunea (estenosis) tratatzeko ebakuntza bat da. Uretra barruko orbain batek eragiten du estugunea; izan ere, horren kalibrea txikitzen du. Hainbat kausak eragin dezakete: sortzetikoak (normalean, haurtzaroan antzematen da), infekzioak, traumatismoak, aurreko kirurgia transuretral baten edo zundaketen ondorioak, edo idiopatikoa (kausa ezagunik gabe). Prozeduraren helburua gernu egitearen kalitatea hobetzea da, eta maskuriko zunda iraunkorra kentzea, halakorik baduzu (dela uretrala, dela pubis gaineko sarea).

Endoskopia-gailu bat (uretrotomoa) sartzen da uretratik, bai eta laban bat ere, estenosiaren ingurua (estugunea) ebaki ahal izateko; hartara, kirurgia irekia saihestuko da. Ebakuntza egiteko, anestesia lokala edo erregionala eman behar da, eta, oso gutxitan, orokorra. Horrek eragin ditzakeen arriskuen berri anesthesiologia zerbitzukoek emango dizute.

Kirurgiaren ondoren, beharrezkoa izan daiteke uretrako zunda bat eramatea 7-10 egunez. Uretraren kalibrea mantentzeko, baliteke uretraren dilatazioak egin behar izatea zunda kendu ondoren; alegia, zundaketak egitea gero eta kalibre handiagoko zundekin.

C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Teknika egokia aukeratu eta era egokian gauzatu arren, espero gabeko ondorioak ager daitezke (ez dira oso ohikoak), bai edozein ebakuntzatan ager daitezkeenak, organo eta sistema guztiei eragin ahal dietenak, bai prozedura honexeri dagozkionak. Honelakoak izan daitezke:

- Gernu egiteko modua ezin hobetu ahal izatea eta maskuriko zunda iraunkorra ezin kendu ahal izatea (halakorik baduzu).

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:

B. INFORMACIÓN:

La uretrotomía interna endoscópica es una intervención que sirve para tratar la estrechez (estenosis) de uretra. Esta estrechez se debe a una cicatriz interior de la uretra que disminuye el calibre de ésta. Puede ser debida a varias causas: congénita (habitualmente detectada en la infancia), infecciones, traumatismos, secuelas de la cirugía transuretral previa o sondajes o idiopática (sin causa conocida). El procedimiento pretende mejorar la calidad miccional, así como retirar la sonda vesical permanente si fuera portador de ella (tanto si es uretral como de talla suprapúbica).

La técnica se realiza introduciendo un aparato de endoscopia (uretrotomo) por la uretra con un cuchillete que va a permitir seccionar la zona de estenosis (estrechez), evitando la cirugía abierta. La intervención requiere de anestesia local o regional y raramente general, de cuyos riesgos le informará el Servicio de Anestesiología.

Tras la cirugía podría ser necesario llevar sonda uretral durante un tiempo variable entre 7-10 días. Para mantener el calibre de la uretra, tras la retirada de la sonda, puede ser necesario realizar dilataciones de uretra (sondaje con sondas de calibre progresivamente mayor).

C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

A pesar de la adecuada elección de la técnica y de su correcta realización pueden presentarse de forma poco frecuente efectos indeseables, tanto los comunes derivados de toda intervención y que pueden afectar a todos los órganos y sistemas, como otros específicos del procedimiento:

- No conseguir mejoría en la calidad de la micción o no poder retirar la sonda vesical permanente, si fuera portador de ella.

- Beste uretrako estenosi bat garatzea, eta, ondorioz, ondorengo tratamenduak egin behar izatea.
- Gernu-inkontinentzia, erabatekoa edo partziala, eta iraunkorra edo aldi baterakoa.
- Kirurgia egin bitartean uretra zulatzea, eta, ondorioz, irrigazio-likidoa uretraren inguruko egituretara estrabatsatzea, eta abszesu bat eratzeko aukera (beste kirurgia urgente baten bidez konpontzen da).
- Odol-galera ebakuntzan edo ebakuntza ondokoan; baliteke transfusioa behar izatea.
- Uretrako fistulak; horiek tratatzea konplexua izan daiteke eta zunda bidez eta/edo ebakuntzekin egin ohi da.
- Beste organo batzuk zulatzea (esaterako, ondestea); konplikazio hori ezohikoa da, baina larria.
- Desarrollo de una nueva estenosis uretral que requerirá tratamientos posteriores.
- Incontinencia urinaria que puede ser total o parcial y permanente o temporal.
- Perforación de uretra durante el acto quirúrgico, que provoque extravasación del líquido de irrigación hacia las estructuras de alrededor de la uretra, con la posibilidad de formación de un absceso, que ser resolvería mediante una nueva cirugía urgente.
- Sangrado, tanto durante el acto quirúrgico como en el postoperatorio, que puede llegar a necesitar transfusión.
- Fístulas uretrales, cuyo tratamiento puede ser complejo, con sonda y/o intervenciones sucesivas.
- Perforación de otros órganos como el recto, esta complicación, aunque excepcional, es grave.

Konplikazio horiek tratamendu medikoarekin (sendagaiak, serumak eta tankerakoak) konpondu ohi dira, baina beharrezkoa izan daiteke beste ebakuntza bat egitea, normalean urgentziaz. Hiltzeko arriskua ere badago, edozer prozeduratan bezala.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergia, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

E. ARRISKU PERTSONALAK:

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikiak eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

Estas complicaciones se resuelven habitualmente con tratamiento médico (medicamentos, sueros...) pero pueden llegar a requerir una intervención, generalmente de urgencia, incluyendo, como cualquier procedimiento, un riesgo de mortalidad.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D. AVÍSENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E. RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F. ORDEZKO AUKERAK:

Uretroplastia irekia, protesiak edo aldizkako dilatazioak. Zure kasuan, medikuak baloratu du uretrotomia endoskopikoa dela aukera terapeutikorik onena.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa: interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. Tratamendu HISTORIKO KLINIKOaren helburua da pazientearen historia klinikoko datuak izatea, haren jarraipena egiteko eta asistentzia-jarduera kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betez. Datuak jakinaraz dakizkieke Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, GSINi, agintaritzak judizialei eta aseguru-erakundeek. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzako osasun-langileek emandakoak dira. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/>.

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

F. ALTERNATIVAS:

Uretroplastia abiarta, las prótesis o las dilataciones periódicas. En su caso el médico ha valorado que la mejor alternativa terapéutica es la uretrotomía endoscópica.

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>.

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El Paciente

Pazientearen izen-abizenak
Nombre, dos apellidos

Sinadura eta data

Firma y fecha

Medikua/Ei/La Médico

Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

Sinadura eta data

Firma y fecha

Ordezkaría: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad

Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

Sinadura eta data

Firma y fecha

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal

Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

Sinadura eta data

Firma y fecha